

Batzuk bukatu
eta besteek
jarraitu

Umeen txanda, atzo,
Kultur Asteetan ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2006-05-14 ▶ IV. urtea ▶ 885. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Gerontologiko baten alde, manifestaziora deitu dute

TOLOSA ▶ Gerontologikoaren
Aldeko Plataformak deituta, hilaren
27an abiatuko da Triangulotik

ATXIKIMENDUA ▶ Eskualdeko
hainbat eragilek eta ordezkari
politikok eman diote babesa ▶ 5



Eskualdeko hainbat herritatik igaro da I. Zaldi Martxa

TOLOSALDEA ▶ 52 lagunek hartu zuten parte atzo, euren behorak eta zaldiak hartuta, eskualdean egiten den lehendabiziko Zaldi Martxan. Goizean goiz irten ziren zaldunak Bidaniatik, eta Tolosara abiatu ziren; bertan, San Frantzisko ibilbidetik igaro ziren kalean zirenen artean ikusmin handia piztu zutelarik.


Bentaunditik gora egin, Marea gainera igaro Intxur kaskoraino eta handik Santa Marinara iritsi ziren bazkaria egiteko. Arratsaldean, Santa Agedara joan ziren, eta handik berriro Bidaniara. Eguraldi aproposa izan zuten zaldunek, haize petralik gabea, eta giro epelarekin. NEREA URBIZU ▶ 7

TOLOSA ▶

Jende eta
salmenta
ugari izan
dira azokan

Udaberriko asteburu
hoberena izateak
eragina izan du ▶ 6

TOLOSALDEA- LEITZALDEA ▶



IÑAKI GOMEZ

Iñaki Gomez
da III. HITZA
Argazki
Lehiaketako
irabazlea

Botoen %38,21a jaso
du bere argazkiak ▶ 4



FotoDepilazioa

**¡PROMOZIO LIMITATUA
MAIATZAREN 28 ARTE TOLOSAN
DEPITOTAL ZENTRUTANI!**

Dori Apaingegia
943 65 40 53
Gernikako Artobalen Lortegiak, 4

Shuyana Edergintza
943 67 54 89
Eskolapiotzako Lortegiak 3-1º A

Bularra gizona

150€

Osasun 1

Bularra gizona

150€

Osasun 1



UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Onurak



Aurrekoan, zure buzoian utzitako *Zahartzaroa* gaia eskaini nizun. *Zahartzaroren ajeak*, hobeto esateko. Graxiano Anduagak idatzitako olerkia jartzen nizun aurrean. Bertan, zahartu ahala gorputzaren desgaste fisikoa, osoki harturik, norainokoa den hogeitamar aditz desberdinekin azaltzen zigun Gesaltzako aitona.

Baldartu, makurtu, nanotu, zabartu,

lelotu, zimurtu, gogortu, gortu, eta abar. Dena beherakada, ezerezaren bidea, sofrimendua.

Hori dena horrela da. Adin nekatua da zahartzaroa. Gorputzeko organoak ahultzen dira. Barruko senak ere hauxe diosku: «Ez dut nahi zahartzarik. Orain nagoen moduan nahi dut bizi».

Baina amildegi horrek ez al du bere bidean lautada goxorik? Ba al du onurarik egoera horrek? Dena beherakada al da? Urtetan oso aurrera doazenak eta osasuna pittal-pattalik ez daramatenak ba al dute gaztaroen eta helduaroan izan ez duten onurataz poztu eta goxatu? Zer lortu edo eskaintzen du zahartzarook?

Ez da oso erraza horri erantzutea.

Gizon eta emakume adintsu famatutakoak omen dira soilik gure gizartean onuradunak. Baina ondoan, aldamenean, auzoan, herritxoan, hirian, urrutian ditugun heldu eta zaharren izateak eta horiei buruz hausnartzeak beste ikuspegi bat adierazten digu.

Badakigu bizitzak berarekin daraman negatibotasunarekin batera errealitate positiboa erakusten digula. Alderantziz ere bai. Gazteak dituen dohainak zentzu batean dira positiboak. Zahartzarook dituen ahuleziak zentzu batean ere dira negatiboak. Bi aroak, gaztarook eta zahartzarook, dituzte aberastasunak eta pobretasunak.

Dozena bat adjetibo edo errealitate nabarmenduko nituzke adinean aurre-

ra doazen pertsonengan: *lasaitasuna, goxotasuna, konformismoa, zuhertasuna, egunerokotasuna, ixiltasuna, barneko bakea, heldutasuna, borobiltasuna, askatasuna, bizitzaren jakinduria eta eskarmentua.*

Baita ere, eta zergatik ez esan, aizu: *hiltzen ikasten joateko ikastaroa.* Kolpera egin beharrean pausoka egiten den ikastaroa.

«Eztia baino hizkera goxoagoa». «Nahia edo gurari askoren lokarritik libre», «Ondasunez nola-hala, baina bertutez aberats»... Horrelako esaldi batzuen bidez gorapatzen digute bizitzaren azken aro naturala. Fisikoki beherakada, nortasunez gorakada: zahartzaroren sekretua omen da.

Bizitza bizitzen doakigun heinean sekretu horren ateak zabalduko zaizkigu.

DATUAK ▶

2.400

metroko desnibela du Erniopeko V. Mendi Ibilaldiak. 2.400 metroko desnibelari egin beharko diote aurre, gaur, Erniopeko ibilaldian parte hartzen ari diren mendizaleek. 06:00etan abiatu dira lehenak Errezilgo plazatik, eta 11 bat ordu pasatuko dituzte tipi-tapa, marbxaren 48,6 kilometroak osatu arte. Erniozaleak elkarteak antolatu du hitzordua.

1.350

metroko desnibela Berastegiko XIV. Ibilaldi Neurtuan. Erniopekoa ez da gaurko mendi marbxa bakarra. Berastegin ere antolatu dute XIV. Ibilaldi Neurtua inguruko basoetatik barrena. 1.350 metroko desnibela eta 30 kilometroko luzera du Basurde elkarteak antolatutako ibilaldiak. Gaztixoenek ere izango dute aukera mendiaz gozatzeko. Guraso Elkarteak prestatutako txangoan.

ARGAZKI ZAHARRA ▶



Ikusmin handia Tolosako Euskal Herria plazako idi probetan

Erredakzioa ▶ Urte dezente pasatu arren, ingurua ez da gehiegi aldatu. Eraikinek bere horretan jarraitzen dute, baita parez pare ikusten den arkua ere. Eta zoruari begiratuta segituan etorriko zaigu burura Tolosako Euskal Herria plaza. Jarduera bera, baina, ez zaigu toki horretan hain ezaguna egingo. Bada, zoru horretan egiten ziren

garai batean idi-probak. Ikusmin handia pizten zuten, gainera, lehia horiek, eta Euskal Herria plaza erruz betetzen zuten tolosarrek eta ingurutik etorritakoek. Hala erakusten du Jose Maria Tuduri Esnalen *Argazkiak Tolosa (1920-1945)* liburuak jasotzen duen 1940-45 bitartean hartutako goiko irudi honek. *ARGAZKIAK TOLOSA (1920-1945)*

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilarizan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaletxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

Osakidetza. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

ESANAK ▶



KIKE ZINKUNEGI
'EUSKAL HERRIA' ALDIZKARIA

«'Euskal Herria' aldizkarian hemen bertan jaialdi ibiltari bat egiteko asmoa genuen. Bidaia lantzen dugunez, kultur ezberdinetako jendea, musika, gastronomia... hona ekarri eta ezagutaraztea pentsatu genuen. Hala jaio zen 'Mundumira' jaialdia»

«Lehendabiziko saioan arlo pila bat uztartzen saiatu ginen: musika, mendia, familia-giroa...»

«Iaz egitasmoaren elastikoa atera genuen, eta hortik irabazitakoa irabazi asmorik gabeko elkarteren baten proiektua bultzatzeko erabili genuen. Salmenta arrakastatsua izan zen oso, 4.000 euro inguru, Mozanbiken egitasmo bat finantzatzeko; aurten antzera jokatu dugu»

'Habe' (2006ko maiatza)

GUTUN@K ▶

Neoliberalismoa Tolosaldean

Neoliberalismoa bezalako hitz bat entzuten dugunean, gugandik urruti dagoen zerbait adierazi nahi duela iruditzen zaigu normalean. Tolosaldea mota horretako eztabaidetatik kanpo dagoen bailara idiliko bat balitz bezala. Baina errealitatea azterten hasten bagara, gugandik hurbil ere ikusi ahal izango ditugu hitz potolo honen eraginak. Neoliberalismoa azken hamarkadetan munduan nagusitza lortu duen filosofia politiko eta batez ere ekonomikoa da. Mundu anglosajoiaren iritsi zen lehenik boterera, 1980ko hamarkada hasieran, Margaret Thatcher eta Ronald Reaganekin. Gero handik mundu guztira zabaldu da.

Teoria honetan, gizarteko arlo guztiek hobeto funtzionatzeko esku pribatueta badaude. Gizarteak hobeto funtzionatzeko du muga publikorik gabeko merkatu askearen eskuetan uzten bada. Politikak ez luke, beraz, ekonomian eskurik sartu beharko, eta ekonomiak kontrolik gabe mugitu eta hazi beharko luke, garapen ekonomiko horren ondorioz etorriko omen da eta gero garapen soziala.

Esan bezala, ideia hauek iritsi dira Euskal Herrira ere azken urteetan, eta gure bailara ez da salbuespena. Askotan, herritarrentzako ona ez den albiste bat jasotzen dugunean, uneko erreakzioa mugatzen gara, eta ez dugu ikusten gertaera horrek gizarteko egoera orokorrekin duen lotura. Momentuko haserrea adierazi eta gure interes zehatzak defendatzera mugatzen gara, baina ziurrenik beharrezkoa da testuinguru orokorra ulertu eta gizarte ereduaren zantzen jartzera.

Adibideak ugariak izan dai-

tezke. Har dezagun etxebizitzaren gaia. Euskal Herriko gainontzeko tokietan bezala, Tolosaldeko etxebizitzaren prezioak ere igoera ikusgarria izan dute azkeneko hamar urte hauetan. Merkatu liberalizatu-pribatizatu, denok (udaletxe, eraikuntza, enpresa eta herritar) ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatzen gara etxebizitzari. Baina etxebizitzak negozio iturri izan behar ote du? Ez ote da oinarrizko eskubide? Gauza da, egoeraren ondorioz, askok diru asko irabazi dutela eta irabazten jarraitzen dutela, baina beste askok ezin dutela nahi duten tokian bizi, ezin dutela bizitzeko autonomo bat hasteko etxe bat lortu, edo leporaino zorretan sartu eta 30 urte edo gehiagorako harrapatuta geratzen direla. Hobeto funtzionatzeko al dute gauzak merkatu askearen eskuetan uzten ditugunean? Horra hor ideia hori zailtzen jartzeko lehenengo adibide hurbila.

Bigarren adibidea enpleguaren mundua izan daiteke. Globalizazioa, multinazionalak, deslokalizazioa eta abar bezalako fenomenoak gertu dabiltzala ikusi ahal izan dugu azkeneko aste hauetan Volkswagen-Nafarroa et Mercedes-Araba kasuekin. Eta Tolosaldean ere badakigu zerbait honi buruz, gure enpresa garrantzitsuenetakoa batzuk atzerriko kapitalaren eskuetan baitaude azkeneko hamarkada hauetan. Eta badakigu zer egiten duen kapital horrek baldintza hobea (soldata baxuagoak, lanaldi luzeagoak, zerga txikiagoak) bilatzen dituenean... Enpleguari dagokionean, ugariak dira baillaran (gainontzeko tokietan bezala) enplegu bat bilatzeko zailtasunak dituztenak, edo bilatutakoan kalitate kaskarreko eskaintzak onartu beharrean aurkitzen direnak: 600-800 euroko soldata, sei hilabeteko kontra-

tuak, lanaldi luze eta irregularrak... Langabezia, prekarietatea eta ezberdintasun sozialak ez dira Bilboko ezkerrealdean bakarrik gertatzen diren gauzak.

Osasunaren gaira salto egiten badugu, orain dela gutxi (2006-03-09), Pilar Garcia Lopez, Isabel Chocarro eta beste 31 lagunek gogorarazten zizuten prentsan nola Tolosako Anbulatorioa pribatizaten ari diren, Osakidetza gero eta zerbitzu gehiago ari baita eramaten Asuntzioneko Klinika pribatutara. Hirugarren adinaren gaian ezaguna da Gerontologikoaren itxiera. Osasuna eta zahartzarora ere negozio bihurtu behar al ditugu? Liberalen ustez, bai. Ikuspegi kritiko batetik, ordea, ez dago garbi enpresa pribatuaren eskuetan zerbitzua hobea denik, eta gainera orain askoz gehiago ordaindu beharko ditugu zerbitzu hauek, jende askok zailtasunak edukiko dituelarik gauza hauek ordaintzeko.

Azken adibide bat: kirola. Urtean 60 euroko kuota bat izateko, 216 izatera pasatu da urteko bonoa Tolosako kiroldegiko pribatu berrian, hau da, hiru aldiz garestiagoa. Gazte, langabetu, prekario edo familia askok berritan pentsatu beharko dute orain kiroldegira joateko aukera. Eta, gainera, hiru aldiz hobea al da orain eskaintzen den zerbitzua? Zalantzan jarri daiteke. Udararako lehen zegoen igerileku *olimpikoa* baino txikiagoa da orain, eguzkia hartzeko ere leku gutxiago dago, gimnasioan ere luzapenak egiteko leku gutxiago dago... Isabel Echarrak eta beste 20 lagunek, adibidez, aerobikeko talde batekin gertatzen zena salatzen zuten prentsan aurretiko kurtsoan bertan: aurretik zegoen Tolosako irakaslearen ordez, kanpoko irakasle bat ekarri dute, bezeroek aurrekoarekin jarraitu nahi zutelaren errepikatua

arren; 40 lagunentzako prestatura dagoen gelan 60 sartzen dituzte; ordutegiak ere arazoak... Kirolak ere errentagarritasun ekonomikoaren irizpideekin funtzionatu behar al du?

Esan nahi duguna da gauza hauek guztiak isolatuta ez baino elkarrekin harremanetan daudela. Gizarte ereduaren dela azken batean jokoan dagoena. Ekologiaren kasuan, adibidez, *garapen iraunkorra* bilatu behar omen dugu orain, baina besteetik sekulako txikiak eragingo duen Abiadura Handiko Trena datorrigu. Eta egia da agian behar dugula, gizarte honen gero eta gehiago behar baitu denetik. Horregatik, gizarte bera da zalantzan jarri behar duguna.

Gauza hauek guztietaz hitz egiteko, herritar talde batek Maiatza Gorria izeneko jardunaldiak antolatu ditugu hurrengo asteetan, asteartean, hilaren 16a hasita eta 31 arte: Azken urteetan Venezuelaren gertatutako aldaketek buruzko dokumental bat, Ibon Artolak aurkeztuta; Joxe Iriarte *Bikila-k Ezkerraren gaur egungo egoerari buruzko reflexio batzuk* hitzaldia emango du; *Los Edukadores* filma ikusiko dugu; Bilboko Liki-niano elkarteak beren erresistentzia esperientziak kontatuko dizkigute; Piratak taldeak Euskal Herriko borroke eginitako bideoa ikusi ahal izango dugu; *Gerra Zibila Euskal Herrian* hitzaldia emango du Pepe Blanesek; Paul Nicholsonek *Globalizazio neoliberalaren aurkako borroka* azalduko digu; Lurrik Gabekoen Mugimenduari buruzko dokumentala ikusiko dugu; *Euskal Herria Sozialista* aldizkariaren aurkezpene egingo dugu... Ekitaldi guztiak 19:00etan izango dira. Gonbidatuta zaudete. Animatu eta etorri!

JOXI IMAZ ▶
TOLOSALDEKO GORRIAK-EN IZENEAN

Zizurkilgo
Plaza Etxeberri
jatekxan
kamarera behar dugu
616 647 869

Abraham Olano martxa zikloturista
2006-05-21 8:00 (Usabal kiroldegia)
Informazioa: www.tolosa750.net

Tolosa 750 ibilbide bereziak: 66, 114 eta 168 km.

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

Jackpot parte hartzailean arloan. Emari lotu behar du izenak. BALAZIA ZERAKAL SAHARATUTSUA. HONEN EGIAZ BERRIKETA 448 074 010

Komunikabide batek pertsona bat behar du asteburuetan argazkiak ateratzeko. Interesatuak deitu 661 678 817ra astelehen, astearte edo asteazkenean, 12:00etik 14:00etara.

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Iñaki Gomezek irabazi du III. HITZA Argazki Lehiaketa

Botoen %38,21 jasota irabazi du Villabonako Bidaide agentziak emandako bidaia; Marian Agirrerentzat eta Joseba Iturberentzat, berriz, HITZAko materiala



Parisen atera zuen Iñaki Gomezek lehiaketara bidalitako argazkia: Notre Dame katedrala ageri da bertan. IÑAKI GOMEZ

ERREDAKZIOA

III. HITZA Argazki Lehiaketak badu dagoeneko irabazlea. Iñaki Gomez tolosarrak Paris-ko Notre Dame katedralari ateratako irudiak jaso du eskualdeko euskarazko egunkariaren harpidedunen eta irakurleen boto gehien eta, beraz, argazki horren egileak gozatu du Villabonako Bidaide

agentziak emandako bidai ederraz.

Oso arrakastatsua izan da, beste behin, HITZAREN Argazki Lehiaketa. 78 lagunek hartu duzue parte eta, guztira, 122 irudi lehiatu dira. Era guztieta-koak izan dira, gainera: naturaren edertasuna islatzen zuten paisaiak, herri eta hirietako toki edo eraikin tipikoak, mун-duko txoko desberdinetako

jendea... Irudien bitartez, Euskal Herria gehiago ezagutzeko aukera ere izan dugu, asko izan baitira bertan hartutako argazkiak. Beste kulturak, herriak eta parajeak ere jaso dituzte zuen kamerek.

Joan den igandean argitaratu zituen HITZAK zortzi argazki finalistak, eta aste honetan izan duzue gustukoena aukeratu eta botoa emateko aukera.

Parte-hartzaileak asko izan bada, ez dira gutxiago izan bozkatzea erabaki dutenak; hain zuzen ere, aurreko edizioetan baino lagun gehiago animatu da gehien gustatzen zitzaion argazkiaren alde egitera lehiaketaren azken txanpa honetan.

Boto horien %38,21 lortuta irabazi du III. Argazki Lehiaketa Iñaki Gomez tolosarrak. Inpresionismo garaiko Claude

PARTE-HARTZEA SARITUZ ▶

Bi zozketa egin ditugu: lehena, argazkia bidali duten guztien artean; bigarrena, argazki irabazlea aukeratzeko botoa eman duten denen artean. HITZAko materiala jasoko dute opari zozketa bateko zein besteko irabazleek. Hauexek dira:



Joseba Iturbek San Vicente de la Barquerana (Kantabria, Espainia) ateratako argazkia.

1. ZOZKETA

Noren artean. Lehiaketara argazkia bidali dutenen artean.

Irabazlea. Joseba Iturbe tolosarra.

Saria. HITZAREN gerriko poltsa.

2. ZOZKETA

Noren artean. Argazki irabazlea aukeratzeko botoa eman dutenen artean.

Irabazlea. Marian Agirre ibartarra.

Saria. HITZAREN motxila.



HITZAko gerriko poltsa eta motxila.

Monet pintore frantziarrak Notre Dame-ko katedralari eguneko ordu desberdinetan eginitako koadro ezagunak ekartzen ditu gogora Parisen jasotako irudi honek. Bidelaguna aukeratu eta bost eguneko egonaldia Asturiasen (Espainia) edo Costa Bravan (Katalunia) pasatu nahi duen aukeratu besterik ez du egin behar orain.

Bestalde, eta denen parte-hartzea saritzeko, HITZAko materialaren zozketa ere egin dugu. Batetik, argazkia bidali duzuenen artean: Joseba Iturbe tolosarrak jasoko du eskualdeko euskarazko egunkariaren gerriko poltsa. Eta, bestetik, botoa eman duzuen guztien artean: Marian Agirre ibartarrentzat izango da HITZAko motxila.


“Anoetako Baserriak” liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 15ean,
19:30ean, Anoetako San Joan Parrokian.

Oharra:
Aurkezpen ekitaldian txartel honekin liburu bat lortzeko aukera izango duzu



Anoetako
Udala



GERONTOLOGIKOA ▶

JAIONE ASTIBIA

Gerontologiko berria, orain! Horixe izanen du aldarraren 27rako Gerontologikoaren Aldeko Plataformak deitu duen manifestazioak. Triangulotik, 12:00etan aterako den manifestazio honek, oraingo honetan, azpieskualdeko askotariko eragilean atxikimendua jaso du. Hala, plataformarekin batera agerraldia egin zuten atzo berean, herrian bertako auzo-elkarteetako ordezkariak gain —Oargi, Aurpegi, Bonberenea, Harizpe, Iturriza, Bizinahi elkartekoek—, kideek ere; era berean, Tolosaldeko herrietatik etorritako hainbat ordezkari politiko ere bertan ziren: Alegia, Amezketak, Ibarra, Lizartza, Gaztelu, Orendain, Aduna, Anoeta eta Tolosatik etorritakoak, esate baterako.

Aitatutako horien guztien ordezkariak, duela 14 hilabete arte irekita zegoen gerontologikoaren egoitzan egin zituzten adierazpenen hariora, han egin baitzuten batzarra, denbora horretan guztian «Udalean eta Diputazioan dauden ordezkari politikoekin» lanean aritu dira, eta «presionatu eta deseroso sentiarazi ahala funtzionatzen dutela ikasi dugun».

Zentzu horretan, hilabete horietan egindako lanaren emaitzak baliozkoak direla jakinarazi zuten, «urrats txikiak izan arren, beti aurrera goazelako». «Herriarrak informatzeko eta politikoei arazoa hor dagoela gogorarazteko» egindako ekimenak asko izan direla agertu zuten (erakuslehiotako karte-

Gerontologiko berriaren alde manifestaziora deitu dute eragile ugarik, hilaren 27an

Gerontologikoaren Aldeko Plataformak egindako lanak «beharra badagoela erakutsi du», eta zentro berria egitea eskatuko du «justiziaz» dagokielako

lak, prentsako agerpenak, banderolak, sinadura bilketa...) eta politikoekin egindako lana azpimarratu zuten.

Horrela, inguruko herrietako alkate eta ordezkariak bildu direlarik, «lanean aritzeko intentzioa azaldu dute Iurreamendi, azpieskualde guztiko herritarrek erabiltzeko duten eskubidea denfendatzeko». Herriko alderdi politikoekin ere beste hainbeste eginda, «falta den bakarra EAJ alderdia» da; gainerakoekin, lan-talde bat sortzea eta testu bat adostea lortu dute.

«Arazoa badela onartu»

Zehaztu dutenez, «guxienez, arazoa badagoela onartu dute, hau da, guk horrenbeste aldiz errepikatu dugun 87 plazen defizita badagoela».

Agerraldian nabarmendu zuten, «arrazoia eskutik izanda, inork ez digu oker gabiltzanik esan inon». Hala, Gerontologikoaren Aldeko Plataformako kideek irtenbideak bi-



Hilaren 27an zentro berria eskatzeko manifestaziora deitu zuten atzo Tolosaldeko eragileek. JAIONE ASTIBIA

lartzeko garaia iritsi dela uste dute, eta zentro berri bat egitea eskatuko dute: «erdigunean kokatutakoa, publikoa eta kalitatezkoa». Horixe izanen dute hilaren 27an egingo duten manifestazioko lema.

VILLABONA ▶

Ustez, poltsa bat lapurtu izanagatik atxilotuta

ERREDAKZIOA

Atzo goizaldean 46 urteko M.F.D.M. billabonarra atxilotu zuen Ertzaintzak herriko ambulatorio inguruan, ustez, poltsa bat lapurtu izana egotzita.

Itxuraz, inguruko taberna batean lagun bati poltsa ohostu zioten eta hau oharztean, lehentxeago hortik bertatik atera ziren bi lagun atzetik abiatu zen, eta horietako batekin egin zuen topo; horrek lapurretaren egilea bere laguna izan zela aitortu eta poltsaren gordelekua erakutsi zion, Ertzaintzako iturrien hariora, beti ere.

BERTSOAIA: Andoni Eguzit, Olatz Barroaga, Maialen Lopezkito, Igor Etxebarria, Aneka Izquierdo eta Sotxalari Galloa.

Bertso Saioa

Ustez, Antsoi Zahara Egoz, Maialen Lopezkito eta Sotxalari Galloa.

hitza

Ustez, Antsoi Zahara Egoz, Maialen Lopezkito eta Sotxalari Galloa.

udaberriko eskaintza handia

Playa de las Américas Arova - Tenerife Hogaz

Prezioak: 3 lagun 7 gela, hegazkina bilaketa, Tenerife Printzea Hotela****, Hartum-erdi. **499€** (prezioa erreferentzia gisa baino ez da)

23ileko hondartzak, 3 ordu bainu gutxiagoak, ingurukoak

Prezioak: 20-27. Ekainak 3-3, 9-18 eta 18-17. 3 gela, 2 lagun, 12 gela, 12 lagun. **168€** (prezioa erreferentzia gisa baino ez da)

TermoEuropa Bains-etxea arimoduko, eguzki, hondartzak, botaneroak.

Prezioak: Ekainak 1-3, 9-18 eta 18-17. 3 gela, 2 lagun, 12 gela, 12 lagun. **105€** (prezioa erreferentzia gisa baino ez da)

Valentzia: artez betetako bisita

Arriberria 2 eguneko, 11 Valencia eta bostaldia 10 eta 11. **54,90€** (prezioa erreferentzia gisa baino ez da)

EROSKI bidaiak

merezi duzu

IRURA-BERROBI-ALKIZA ▶ KULTUR ASTEA

Kirola, sormena eta umorea

Atzo arratsaldean etxeko txikienak izan ziren protagonistak, haiei zuzendutako hainbat ekitalditan gogotsu parte hartu baitzuten



Alkizako plazan haurrentzako jolasak antolatu zituzten. N. URBIZU



Irurako Argazki Lehiaketan udaberria eta loreak izan ziren gaiak. N. U.



Eritz Magoak trebezia eta umorea erakutsi zituen. I. TERRADILLOS

NEREA URBIZU

Atzo umeak izan ziren arratsaldeko protagonistak, Irura, Berrobi eta Alkizako Kultur Asteek hainbat ekitaldi zuzendu baitizkiete etxeko txikienei. Alkizan, goizean mendi martxa eta arratsaldean jolasak eta kokoloa; Iruran sormenari bidea irekiaz Argazki Lehiaketan; eta Berrobin umorez beteriko Eritz Magoak ikusi ahal izan zuten. Partehartzea bikaina izan da denetan, giro atsegina sortuz.

Berrobiko Kultur Astea bukatu bada ere, ez da ekitaldien zerrenda amaitu beste bi herrietan: Alkizan pilota partidak 11:00etatik aurrera izango dituzte gaur, eta, jarraian, Txoko-

keta herrikoia, kantujira 13:00etik aurrera, bazkaria 14:30ean eta Ikaztegieta dantza taldearen saioa, 18:00etan. Bihar San Isidro Eguna ospatuko dute, 19:00etatik aurrera jaiarekin lotutako ekintzak izango dituztenez.

Iruran, aldiz, gaur Senperera joateko asmoa dute askok, eta ez dute ekitaldirik antolatu. Astelehenean, ordea, 19:30ean herriko dantzarien saioa izango da. Jarraian meza eta afaria 21:00etan, baserriarrentzat. Asteartean, 17:30ean, jubila-tuen jokoak egingo dituzte. 18:00etan, ipuin-kontaketa liburutegiko haur-txokoan. Larumbata bitarte hainbat ekitaldi izango dira Kultur Astean.

AZOKA ▶

Jende eta salmenta ugari nagusi, atzoko azokan

Nabaria zen udaberriko asteburu hobereana dela landareak landatzeko

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animosoa izan zen Tolosan. Salmenta ugari izan genituen, eta eskaintza bera ere goruntz dihoa. Salmenta asko eta animazio handia izan ziren Berdura plazako baratza-rako landareen postuetan. Oso garai aproposan gaude mota honetako produktuentzat, eta udaberriko astebururik hobereana izan zen landareak erosteko eta baratzean sartzeko. Tomatea eta piparrak izan ziren nagusi.

Triangulo plazako perretxiko postuetan ere jende ugari ikusi genuen. Eskaintzak gora egin du, eta honek erakarrita, erosle asko izan ziren. Mortxela, senderuela, eta ziza horia izan ziren atzoko berritasunak.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Ziklamena	5,00	-
Geranioa	2,00	-
Klabelina	3,20	-

Bertako produktuk		
Ziza	12,00	40,00
Intxaurra	2,50	4,00

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Arroza	1,90	2,00

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault Kangoo RXE DTI. 2000koa. 88.000 km. Estrak. 943 69 71 94.

LANA

Gidaria. Tolosako Garraio enpresa batek gidaria behar du C gidabaimenarekin. Eskarmentua estatuan eta nazioartean. Deitu 629 71 48 31 zenbakira.

ALOKERA

Karabana. Errioxako kanpin batean karabana alokatzen da. Guztiz erosoa. Asteburuak... 669 70 68 70.

MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUNA

- Metala-mekanika fabrikazio lanak egiten dituen Tolosaldeako enpresak MANTENTZE-LANEN ARDURADUNA behar du.
- Mekanika eta elektrika arloetan ezagutza handia eskatzen da.
- Arazo pneumatiko eta hidraulikoak konpondu beharko dira.
- Berehala lanean hasteko.

•Bidali curriculuma helbide honetara:
74 posta kutxatila 20400 Tolosa

Astizko kobak S.M. enpresak, Mendukiloko leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udarako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatzeko deialdia luzatzen du.

Egitekoak: kobako bisita gidatuak, tiket salmenta eta taberna hartatzea.

Eskeintza: trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraitzeko aukera.

Balaratuko da: euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

Ezinbestekoak: B1 gida baimena eta autoa (kobara bertaratzeko)

Epea: C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

Nora bidali: Plazaolako Partzuergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri
mendukilo@mendukilo.com

ZALDI MARTXA ▶

Eskualdetik igaro da I. Zaldi Martxa

52 lagunek euren zaldia eta behorrak hartuta paseo bikaina egin dute

NEREA URBIZU

Zaldun ibiltariak aukera eder-rra izan zuten atzokoan zaldi gainean paseoa egiteko, Tolosaldean barna antolatutako lehendabiziko Zaldi Martxan. Antzina erabiltzen zituzten garraio bideak zeharkatu zituzten 52 zaldunek, bai eskualdekoek, bai eta ingurukoek ere. Arrakastatsua izan zen oso, jende ugari bildu baitzen, eta Tolosako kaleetan ere jendea biltzea lortu dutelako zaldunek.

Egitariak berak zioen moduan, 09:00ak aldera ateraz ziren zaldiekin Bidaniatik; bidezidorrak estuak direnez ezin talde handietan ibili, eta hori dela-eta taldea sakabanatuegia zetozerelako, Tolosako Ferialekuan itxaron zuten; bide batez, hantxe mokadutxoak jan zuten, antolatzaileek banatutakoa. Indarberritu beharra zegoen, goizean beste ordu pare bat ibili behar zuten eta.

San Frantzisko ibilbidea zeharkatu zuten eguerdian, udaltzainek bitartean trafikoa unetxo batez eten zutelarik. 52 zaldunek erritmo egokia zeramaten kalean eta ikusmira handia sortu zuten, animalia dotore hauek soilik egiten dakiten moduan: maila handiarekin, eta edertasun bereziarekin.

Eguraldia bikaina

Eguzkiak berotu ez bazuen ere, zaldian ibiltzeko eguraldi aproposa egin zuen atzokoan, euririk ez baitzuen egin, eta haizea

petralik ere ez zuen atera. Giro epela izan zen, beraz, eskualdean eta hori eskertu zuten zaldunek.

Bazkaria ere egitekoak ziren parte-hartzaileak. Bentaunditik gora egin zuten. Isastegi sagardotegiraino, Marea gainetik igaro, Intxur kaskoraino. Santa Marinara iritsita elkartu ziren guztiak bazkaria egiteko.

Arratsaldean ere zaldian

Arratsaldean zaldi gainean paseoarekin jarraitzeko aukera ere izan zuten zaldunek, Santa Agedara joateko bidea prest baitzegoen. Handik Bidaniaraino berriro iritsita, ibilaldiari amaiera emango zioten protagonistek.

Atzokoarekin, Gipuzkoan zaldiz ibiltzeko aukerak zabaldu egin zituzten, «ez baitago gaur egun aukera handiegirik kirol hau bertan praktikatzeko».



Tolosan. San Frantziskon 52 zaldunek harro asko erakutsi zituzten haien zaldia eta behorrak. N. URBIZU



Neska zaldunak. Gutxiago baziren ere, hamar bat neska aritu ziren zaldi gainean paseoan. N. U.



Perratzen. Zaldiek ere atsedenean oinak zaindu behar. N. U.



Atsedena. Bakeroen arropa, baina euskaldunen hamaiketakoa. N. U.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio berogatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶



Ana Mendizabal

Malkoz bete dituzu denon begiak, irribarrez ezpainak eta pozik bihotzak

Maite zaitugunok



GETARIA, 2006ko maiatzaren 14a

hilberria ▶



Ana Mendizabal Eizagirre

Maitasun iturri denontzat laguntasun armarri oinarritzat gaur askatasuna lortu duzun horrek zaren bezalako zarelako gertu zara orogarritzat. «Multa munipei». Maite zaitugunok

Itxaspe Tabernakoak



GETARIA, 2006ko maiatzaren 14a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 14a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

14

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alkiza. Kultur Astea. Gaurko egitaraua: 11:00: Pilota partidak, eta ondoren, Txokoketa herrikoia; 13:00: Kantujira tabernetan; 14:30: Bazkaria Otsamendi jatekean; 18:00: Dantza saioa, eta ondoren, toka txapelketa. Biharko egitaraua: 19:00: San Isidro eguneko meza; 20:00: EHNEko Aitor Aranbururen hitzaldia; 21:00: Afaria Ostatu jatekean.
Irura. Kultur Astea. Biharko egitaraua: 19:30: Iurrako dantzarien saioa; 20:00: San Isidroren eguneko meza; 21:00: Herriko baserritarrentzat afaria.
Leitza. Eskolarteko Bertsopaper Lehiaketa bihar, 11:30ean zineman.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza, Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112
 Tolosa, Bronte, C. Korreo kalea, 20.
 943 67 60 13.

Bihar
 Leitza, Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
 Tolosa, Olarreaga, J. M.J. Iraola, 10.
 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)

Gaur
 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina (errepikapena).

Bihar
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepaso, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Argizirin* aitaldia, Xorroxin irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Izeia txikia moduko antzerki ttiki mordoska eskaini zituzten. J. ASTIBIA



Edo amerindiaren berri ematen zuenaren modukoa. J. ASTIBIA

Elkar ezagutzarako

ARESO ▶ Aresoko, Leitzako, Goizuetako eta Aranoko hurrek, gurasoek, eskolek, topaketa egin dute, Prebentzio Programarekin batera



Egunari bukaera, umeez, gurasoek, irakasleek elkarrekin arratsaldekoa eginez eman zioten. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Lau herrietako jendea elkartu zen atzo Areson, egun beteko festan; guztien artean prestatutakoa, guztien artean gozatzekoa. Umeak izan ziren protagonista, askotariko ekitaldietan parte hartu baitzuten: jokoak, kirola, ikuzkizunak, antzerkiak, musika, dantza... Guztietan bereak izan ziren aktore nagusi, inguruan, gurasoak nahiz prebentzio teknikaria ere adi zizuztela. Gustura aritu ziren, giro bero lagunartekoan.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurra... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Zorionak amonari ebekoen partetik, eta bereziki besarkada handi-handi bat zure semearen partetik.



URTE ASKOAN

Olatz Etxabe (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak Aitziber, amaboa eta aitaboren partetik.



URTE ASKOAN

Oneka Artola Zabala (Alegia). Bihar 3 urte. Ondo pasa eta muxu bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Heiko Wim Nicu Callens Atxaga. Bihar 9 urte. Zorionak aita, ama eta amabiren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker. Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

Hartu Europako trenaren: **Polimeroen injenieritza**

Jardunaldi irekia + Maiatzaren 20an Larunbata 10.30etan

uni.leartik.com

Xarriaren programa informazioa banez erabiltzea eta: **PRO-ENGINEER, ANSYS, HOLDFLOW, KALEIGRAPH, CHEMDRAW...**

98%ko laneratzeko + Punta-puntako teknologia Software hauek erabiltzeko ihaste baliagarri ordenadore eramangarri bana ematen zaio

Kemien Etorbidea, 19. 48270 Markina-Xemein (Bizkaia) Tl. 94 616 90 02. fax. 94 616 91 60 info@leartik.com uni.leartik.com

lea artibai